

## HAURRAK IKAS ZAZUE (herrikoia)

Haurrak ikas zazue  
Euskaraz mintzatzen  
Ongi pilotan eta  
Oneski dantzatzen (bis)

Airetun txikitun, airetun aire,  
Airetun txikitun, airetun aire,  
Airetun txikitun, airetun aire,  
Airetun txikitu-un aire, aire!

Gure kantu zaharrak  
Kontserba ditzagun  
Aire politagorik  
Ez da sortu inun (bis)

## OIHU BAT ENTZUN DA (Imanol Urbietta)

Oihu bat entzun da GORA EUSKARA!  
Bidean jarri gara.  
Tipi-tipi-tap! ibil-ibilian  
Ikurriñak aidean.

Oihu bat entzun da GORA EUSKARA!  
Bidean jarri gara.  
Tipi-tipi-tap! ibil-ibilian  
EUSKARAZ EUSKAL HERRIAN.

Euskara, oi Euskara! Jalgi hadi plazara!  
Gaurdanik eta betiko Euskaraz eta kitto!

# EUSKARAREN EGUNA 2017 KANTU-JIRA



**ABENDUAK 3, igandea**

**17:00**

**Donibane Plazan hasita**

**Ibilbidea:**

**Donibane plaza - Geltoki – Lege Zaharren Enparantza- Musika Plaza**



## **BEHIN BETIKO (Imanol Urbietta)**

Behin betiko, behin betiko,  
sinple bezain tinko, ez dugu etsiko.  
Behin betiko, behin betiko,  
sinple bezain tinko, euskaraz ta kitto.

Etxean eta kalean, berdin-berdin jolasean,  
eskolan, lanean, borrokan eta pakean.  
Dakitenek erabiliz, ez dakitenek ikasiz,  
herri bat osaturik euskaraz nahi dugu bizi.

Hasi etxetik eta kalera, hasi kaletik eta etxera,  
martxan jarri da lege berria euskaraz Euskal Herrian.(bis)

## **BAKARRIK ETA LIBRE (Imanol Urbietta)**

Bakarrik eta libre badoa  
Bakarrik eta libre gaztea,  
Poltsikoan eskuak  
Oinak arrastaka,  
Luzea da bidea.  
Bakarrik eta libre gauean,  
Gaez argitzen zaio bidea,  
Argitzen zelaia,  
Zuhaitzak, mendia.  
Gaez badoa gaztea.

Bidean zergatik?  
Berak ba ote daki?  
Zertarako libre ta bakarrik?  
Adi zak, gaztea:  
Apurtu kateak.  
Inoiz ez duk jakingo  
zer gauza den bakea.  
Kanta-kantari badoa  
Bide guztien ildoan.

## **ABERRIAREN MUGAK (Joxerra Gartzia/Txomin Artola)**

Nire aberria lurra bezain zaharra da,  
baina ez da lurra bakarrik,  
haizeak bezala inguratzen nau eta  
lotzen askatzen nauelarik.  
Nire aberria suaren antzekoa da,  
beti bera berria beti,  
epeltzen nau kanpoan hotz dagoenean  
eta erretzen ere badaki.

**Aberriaren mugak  
euskararenak  
gure baitan daude gehienak  
euskara zabalduaz  
lau haizetara  
zabalago egiten gara.**

Nire aberria harrizko herria da  
hitzezkoa eta hitzezkoa  
altzairuzko txakolin ardo zurezkoa  
eta hondar anonimoa.  
Nire aberria burdin bihurria da  
oroimenean arindua  
itsas laminen batek herdoilezko kantu  
etorkizunez fosildua.

**Aberriaren...**

## **EUSKAL HAURRAK BAGOAZ (Imanol Urbietta)**

Euskal haurrak bagoaz bizitzan aurrera  
Euskaraz ikasiaz guztiok batera  
Gora! Gora! Gora gure euskara  
Gora! Gora! Gora euskaldunak gara! (bis)

## **BIZITZA KANTU BAT DA (Imanol Urbietta)**

Bizitza kantu bat da, guretzat hain justu  
neska mutilak hori dago gure esku.  
Kantari eskolara, kantari jolastu,  
kantari lotaratu, kantari amestu,  
kantatzen ez duenak zorionik ez du (bis).